

*Otsailaren 10ean eman zuen ezagutzera bere burua ekitaldi publiko baten bitartez*

# **Euskarabila Elkarateak Kultur**

## **Etxean ospatu zuen sorrera ofiziala**

Pasa den urtean zehar landutako proiektuak pasa den otsailaren 10ean ikusi zuen argia, azkenik. Euskalzaletasunaren inguruko indar guztiak batu nahi dituen Euskarabilak jendaurrean aurkeztu zuen hemendik aurrera kalera begira egin asmo duen lana.

Herritarrek, Durangoko Berbaro eta Arrasateko AEDko ordezkariak, Euskaltzaindiak eta arduradun politikoek hartu zuten parte saioan, hasi berri denari bultzada eman asmoz. Bide batez, betiko euskaldunentzako aipamen berezia izan zuten.

— Asier Lejarza —

Pasa den otsailaren 10ean eman zuen ezagutzera bere burua Basauriko Euskarabila elkarteak. Bere baitan alor guztietako euskaldunak biltzen dituelarik, euskararen ezagutza eta erabilera berpiztu nahi du herrian, azken urteotan eginiko zenbait ahaleginaren ostean.

Kultur Etxeko areto nagusian Euskarabila-kide, euskalzale eta hainbat lagun bildu zituen talde berriak, aurkezpen sozialtzat har genezakeen honetean. Bide batez, aurrerantzean adierazgarri izango duten logotipoa eta lehendakaria ezagutu genituen. Edu Castaño izango da Euskarabilaren buru publikoa, itzalean lan-talde zabala izango badu ere.

Castañok berak adierazi bezala, ezinbestekoa da Basauriko euskaldunengan eragitea, ezagutza eta erabileraren artean dagoen desoreka ikusita. Hortaz, euskarak kalean duen presentzia areagotzea omen da Euskarabilaren xede nagusia. Egitasmo sendo eta iraunkorra gauzatzen ahalegindu direlakoan daude.

Euskarabilako partaideak ez ziren bakarrik agertu aipatu ekitaldian. Izan ere, beste zenbait herritan jada lanean diharduten taldeetako ordezkariak ez zuten deialdi honetara hutsik egin. Durangoko Berbaro eta Arrasateko AED dira euskalzale basau-



Kultur Etxeko areto nagusiak hartu zuen Euskarabilaren aurkezpena.

ritarrek hartutako eredu nagusiak. Batetik zein bestetik, Arantza Agirre eta Josu Aresolaleiba izan genituen, geure artean sorturiko proiektua bultzatu asmoz.

### **Omenaldia**

Euskaltzaindia bera ere bertan izan zen, Jose Antonio Arana Martija bere izenean, eta ordezkari politikoari dagokionez, Hizkuntz Politikarako Sailordetzako Arantza Aurrekoetxea eta Aitor Bergaretxe

Udaleko zinegotzia.

Arintasunez eginiko aurkezpen honetan, aipatu elkarteetako aipamenekin batera, omenaldirako txokorik ere izan zen. Euskararen aldeko lana orain hasi ez denez, aurretik ere berorren iraupena lortu asmoz ibardun dutenek leku berezia izan zuten, baserrietako euskaldun zaharretatik hasita, eta hil berri den Enrike Jaio ahaztu barik.

Euskarabilak oraintxe ekingo dio jendaurreko lanari. Orain arteko ahaleginak taldearen

egituratze prozesua eta filosofia zehaztean oinarritu dira. Ezkutuko lan honek etorkizunen bizitzetik izango duen elkarte ahalbideratu nahi du.

Euskarabilak ez ditu bere ateak itxi, ez da gutxiagorik ere. Elkarrekin bat egin nahi duenak, bere datu pertsonalak Biok liburudendan utzi egitea baino ez du izango. Talde osoak egituratzeari ekingo dio ere. Lan banaketak batzordeen sorrera ekarriko du, zehazturiko helburuek bide zuzena har dezaten.